



Muga ixteak duen eragin ekonomiko eta soziala

Aurkezpena

COVID-19aren pandemiak eragindako krisiaren ondorioz, inoiz bizi gabeko egoera baten aurrean gaude **eta horrek proban jarri ditu gure bizitzaren hainbat alderdi**, ukaezinak diren errealitate batzuk barne, hala nola pertsonen eta langileen zirkulazio-askatasuna Europar Batasunaren baitan.

Ildo horretatik, frantziar eta espainiar estatuen arteko **muga itxi da birusaren hedapena geldiarazteko xedez**, eta horrek **are eragin handiagoa izan du** inongo arazorik gabe Akitania Berriaren, Euskadiren eta Nafarroaren artean bizi diren edo lan egiten duten **herritarren** errealitatean, baita Euroeskualdearen babesa duten **mugaz gaindiko lankidetzaproiektuengan** ere.

Hala ere, une honetan, eta zuhurtziaz diogu, badirudi **egoera egonkortzen hasi dela eta etorkizunera begiratzeko eta lurraldearen berreskurapenean pentsatzeko garaia dela**.

Horretarako, **ezinbestekoa da mugaren itxierak eta osasun krisiak izandako eragina ulertzea eta kualifikatzea**, beharizan nagusiak eta lehenetsiak burutu beharreko ekintzak identifikatuz. Testuinguru horretan, funtsezkoa da **mugaz gaindiko herritar eta langileen testigantzak zuzenean ezagutzea**. Eragindako kalteen ezagupenetik soilik atera ahalko ditugu etorkizunean lagungarri izan diezazkigukeen irakaspenak.

Era berean, galdetegi bikoitza egitera ekin diogu, mugaz gaindiko herritarrei zuzenduta alde batetik, eta Euroeskualdeko proiektukideei zuzendurik, bestalde.

Dokumentu honen helburua **COVID-19ak Euroeskualdearen lurraldean izandako eragin ekonomiko eta soziala ezagutzea** da, herritarrek hilabete hauetan izandako arazo nagusiak identifikatuz





Edukiak



Mugaren itxierak
ekarritako **errealitate
berria**

6



Euroeskualdeko
proiektuen garapena
egungo egoeran

23



Inkestren **metodologia**

34



Ondorioak

40



Eskerrak

43

1. kapitulua

Mugaren itxierak ekarritako errealitate berria

1.1. Mugaz gaidiko herritarrak

1.2. Mugaz gaidiko langileak

1. kapitulua | Mugaren itxierak ekarritako errealitate berria

Mugaren itxierak eragin negatiboa izan du mugaz gaindiko herritarrengan eta langileengan, eta oso eragin handia izan du gizartean eta ekonomian. Hori dela eta, ezinbestekoa da mugaren itxierak mugaz gaindiko herritarrei eta langileei eragindako kaltea ahalik eta gehien murrizteko jarduera-eremu nagusiak identifikatzea.

Mugaren itxierak mugaz gaindiko herritarrengan eta langileengan izandako eragina murrizteko jarraibideak eta ekintzak identifikatzeko xedez, **Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak inkestak egiteko prozesua** abiarazi du lurralde horietan bizi diren gizatalde horiei zuzendurik. Zentzu horretan, mugaz gaindiko herritarren bizitzako **gizarte- zein lan-esparruan identifikatu diren eragin-faktore eta arazo nagusiak** barne hartzen ditu inkesta-prozesuak.

Mugaren itxierak mugaz gaindiko herritarrentzat suposatu duenaren eta momentu honetan suposatzen ari denaren jakitun izanda, inkesta honen helburua mugen itxierak izandako **eraginaren kuantifikazioa eta kualifikazioa** egitea da, **bitzita mugaz gaindi egiten duten herritar askoren errealitatea ezagutzeko testigantzak** bilduz.


Ildo horretatik, aurrerago zehaztuko den bezala, mugaz gaindiko herritarrengan izandako eragin sozioekonomikoa aztertuko da alde batetik, eta mugaz gaindiko langileengan izandako eragina bestetik. Talde bien ikuspegia lortuz gero, modu zehatzagoan ulertu ahaliko dugu mugaren itxierak gizarte-, ekonomia eta lan-arloan izandako eragina. Horrela, inkesta-prozesua 2020ko ekainaren 4an hasi zen eta herritarrek gutxi gorabehera bi asteko epea izan zuten erantzuteko. Arestian aipatu den bezalaxe, inkestaren helburu nagusia Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak muga itxita egon bitartean gauza zitzakeen jarraibideak eta ekintzak identifikatzea izan zen.

1.1. Herritarren eta langileen ezaugarriak

Galdetegian parte hartu duten pertsonen ezaugarrien gaineko ikuspegi orokorra izateko, pertsona horien **datu demografikoak** bildu ziren, tartean adina, generoa, ikasketa maila edo jatorria. Inkesta mugaz gaindiko herritarrei eta langileei zuzenduta egon zen eta guztira **2.357 erantzun** jaso ziren.

Inkestan parte hartu zuten pertsonen artetik, **%58,5 emakumezkoak** izan ziren, **%39,5 gizonezkoak** eta **%1,6k generoa ez zehaztea** erabaki zuten.


Inkestan parte hartu zuten pertsonen generoa



Inkestan parte hartu zuten pertsona gehienak **emakumezko gisa (% 58,5)** identifikatu ziren eta **% 39,5 gizonezko gisa** identifikatu ziren.

46 eta 55 urte bitarteko pertsonen osatutako adin taldea izan zen erantzun gehien eman zituena (%25,2) eta jarraian **36 eta 45 urte bitarteko pertsonen osatutako adin taldea** eta **56 eta 65 urte bitarteko pertsonen osatutakoa**, hurrenez hurren. Era berean, aipatu beharra dago **gutxien erantzun zutenak 18 urtetik beherako adingabeak (%0,9) eta 19 eta 24 urte bitarteko pertsonak (%4,5)** izan zirela.


Inkestan parte hartu zuten pertsonen adina



46 eta 55 urte bitarteko pertsonen osatutako taldea izan zen **adierazgarriena** eta jarraian **26 eta 45 urte arteko pertsonen osatutakoa**.

Hezkuntzari erreparatuz gero, inkestan parte hartu zuten pertsona gehienek unibertsitate-ikasketak edo parekoak zituzten (%57,2), %19,9k lanbide-heziketa eta % 14,9k batxilergoa. Esan beharra dago galdetegian parte hartu zutenen %0,6k bakarrik ez zeukala ikasketarik.


Inkestan parte hartu zuten pertsonen ikasketa maila



Inkestan parte hartu zuten pertsonen % **57,2k unibertsitateko ikasketak edo parekoak** zituzten.

Inkestan parte hartu zuten pertsonen artean, **%62,3 Pirinio Atlantikoetan (Akitania-Berria) bizi zela** ikusi zen, **%20,6 Gipuzkoan**, **%9,3 Nafarroan** eta gainerako %4,3 mugatik hurbil dauden beste lurralde batzuetan (Araba, Bizkaia, Landak, etab.).


Pirinio Atlantikoak dira mugaz gaindiko herritar gehien dituen lurraldea, hau da, mugaz gaindiko herritar guztien **%62,3**.



Inkestan parte hartu zuten pertsonen ezaugarri demografikoak bildu ondoren, **mugaz gandi bizi ziren pertsonak ote ziren** identifikatu zen, lurraldeen arteko mugimendu-fluxuak eta muga gurutzatzeko maiztasuna identifikatuz.

Zentzu horretan, **inkestan parte hartu zuten pertsonen %30,5k astean behin gurutzatzen du muga; %18,7k, aldiz, hamabost egunean behin gurutzatzen du eta %15,8k egunero edo ia egunero**. Horrela, muga hilean behin gurutzatzen duten pertsonak (%12,8), hilean behin baino gutxiagotan gurutzatzen dutenak (%9,1) eta inoiz gurutzatzen ez dutenak (%1) ez dira mugaz gaidiko pertsona bezala hartu. Beraz, **inkestan parte hartu zuten pertsona guztien artean, %75 izan ziren mugaz gaidiko herritarrak eta langileak**.

Muga gurutzatzeko maiztasuna




Inkestan parte hartu zuten pertsonen artean **%75ek hilean behin baino gehiagotan gurutzatzen du muga**. Pertsona horien artean **%15,8k asteko egun guztietan edo ia guztietan gurutzatzen du muga**.

Ildo horretatik, azpimarratu beharra dago **mugaz gaidiko langileak direla lurraldeen artean gehien mugitzen direnak** (%49,6 asteko egun guztietan edo ia guztietan). Bestalde, mugaz gaidiko herritarrek, arrazoi ekonomikoak direla medio, gutxien zeharkatzen dute muga; izan ere, gehienek astean behin gurutzatzen dute (%40,5).

Horrela, mugaz gaidiko pertsonen lurraldeen artean mugitzeko orduan **autoa erabiltzen dute nagusiki (%88)**. Trena, motorra, bizikleta, oinezko garraioa eta beste garriobide batzuk dira oro har gutxien erabiltzen direnak.


Mugaz gaidiko lurraldeen artean mugitzeko gehien erabiltzen diren garriobideak



Mugaz gaidiko pertsonen artean **%88k autoa erabiltzen du** lurraldeen artean mugitzeko.

Azkenik, inkestan parte hartu zuten pertsonen ezaugarriekin bukatzeko, **normalean muga zergatik gurutzatzen zuten** galdetu zitzairen eta hiru talde handitan banatu ziren emandako arrazoiak: **arrazoi sozioekonomikoak** (hezkuntza, arrazoi pertsonalak eta familiarekin zerikusia dutenak, osasuna, merkataritza, kultura, kirol jarduerak eta aisialdiko jarduerak, etab.), **lanarekin zerikusia duten arrazoiak** edo **biak**.

Mugaz gaindiko lurraldeen artean mugitzeko arrazoi nagusiak



Mugaz gaindiko pertsonen artetik **%68,4 arrazoi sozioekonomikoengatik** mugitzen da lurralde batetik bestera.

1.2. Mugaren itxierak arrazoi sozioekonomikoengatik lekualdatzen diren mugaz gaindiko herritarrengan izandako eragina


Inkestan parte hartu zuten pertsonen lehenengo analisia egin ostean eta mugaz gaindiko herritarrak identifikatu ostean, honako ondorio hau ateratu zen: **persona horien artetik %92,1 arrazoi sozioekonomikoengatik mugitzen da** mugaz gaindiko lurraldeen artean, **15 egunean behin edo gehiagotan**. %92,1 horretatik %23,8 lanarekin zerikusia duten arrazoiengatik ere lekualdatzen da.



Mugaz gaindiko pertsonen artetik **%92,1ek arrazoi sozioekonomikoengatik gurutzatzen du muga**.

Zentzu horretan, mugaz gaindiko herritarrak lurralde batetik bestera doazenean, **erosketak egiteko (%79,1)**, bigarren etxebizitzara joatearen edo lagunak eta/edo senideak bisitatzearen tankerako **arrazoi pertsonalengatik (% 59,7)**, **kirola egiteko edo aisialdiko jarduerak egiteko (%49,9)** eta **kultur jarduerak egiteko (%39,2)** egiten dute.


Mugaz gaindiko lurraldeen artean mugitzeko arrazoi sozioekonomiko nagusiak



Herritarrek muga arrazoi sozioekonomikoengatik gurutzatzen dutenean, gehienetan **erosketak egiteko (%79,1)** eta **arrazoi pertsonalengatik (%59,7)** izaten da.

Mugaren itxierak eragina izan du jarduera horiek burutzeko orduan, mugaren alde bietan. Horrela, mugaz gaindiko herritarren % **39,9ri biziki eragin dio** mugaren itxierak; % **27ri**, aldiz, **asko eragin dio** eta % **3,6k bakarrik ez du eraginik nabaritu**.

COVID-19aren krisiak iraun bitartean muga itxita izateak mugaz gaindiko herritarren eguneroko bizitzan izandako eragina




Mugaz gaindiko herritarren artetik %66,9ri biziki edo asko eragin dio mugaren itxierak.

Behin mugaz gaindiko herritarren arabera mugaren itxierak haien eguneroko bizitzan izandako eragin maila identifikatuta, herritarren mugimenduen arabera mugaren itxierak mugaz gaindiko jarduerak egiteko orduan nola eta non eragin zuen aztertu da.

Ildo horretatik, COVID-19aren eragina batez ere Pirinioetan izan zen nabarmena (egoiliarren artetik %68,3ren ustez asko edo bete-betean eragin zien) eta Gipuzkoan ere bai (%63ren ustez asko edo bete-betean eragin zien). Nafarroa izan zen gutxien eragindako lurraldea, Pirinioen eta Gipuzkoaren antzeko ehunekoa izan arren (%62). Zentzu horretan, Nafarroan bizi diren pertsonen artetik %6,5en ustez COVID-19ak ez zuen inongo eraginik izan, Pirinio Atlantikoetan baino %3,3 gehiago eta Gipuzkoan baino %2,2 gehiago.

Hala, mugaz gaindiko herritarren artetik %89,4k adierazi zuen muga itxi zenean mugaz gaindiko jardueraren bat egiteari utzi behar izan ziola. Bestalde, %10,6k baino ez du jarduera horiek bere lurralde barruan egiten jarraitu.


Mugaz gaindiko jarduerak egiten jarraitu duela baieztatu edo ukatu duen herritar kopuruaren ehunekoa



Mugaz gaindiko herritarren artetik %89,4k jarduera sozioekonomiko jakin batzuk egiteari utzi behar izan dio mugaren itxieratik.

Hala, mugaren itxiera dela-eta mugaz gaindiko herritarrek alde batera utzi behar izan dituzten jarduerak nagusiak identifikatu ziren. **Mugaz gaindiko jardueraren bat egiteari utzi behar izan dion %89,4** horretatik, **%80,1k** adierazi zuen **erosketak** egiteari utzi behar izan ziola eta **%62,4k** **jarduera pertsonalak** egiteari utzi behar izan ziola (senideak eta/edo lagunak bisitatzeari, bigarren etxebizitzara bidaiatzeari, etab.) eta **%49,4k** **kirol jarduerak eta aisialdiko jarduerak** egiteari utzi behar izan ziola (jarduerak gastronomikoak, esaterako). Hala, mugaz gaindiko herritarrek lurralde batetik bestera mugitzea eskatzen duten jarduerak nagusiak izan dira kaltetuenak: erosketak egitea, arrazoi pertsonalengatik egindako lekualdaketak eta kirol jardueretarako eta/edo aisialdiko jardueretarako egindakoak.


Mugaren itxierak etendako jarduerak espezifikoak



Mugaz gaindiko herritarren artean **%80,1ek** mugaz gaindiko jarduerak sozioekonomikoak egiteari utzi dio mugaren itxieragatik.

Muga ireki ostean jarduerak horiek osasun krisia baino lehenago egiten zituzten bezala egiten jarraituko luketen galdetu zitzaizkien jardura. Jarduerak horietako bat egiteari utzi behar izan zioten herritarren ustez, oro har **berririko ekingo diete jarduerak horiei** eta horiek esan nahi du **mugaz gaindiko jardueren sektoreetarako baikortasuna** dagoela. Herritarrek alde batera utzi behar izan duten jarduerak bakoitzeko egindako balorazioa ageri da jarraian. Bakarka egin ziren balorazioak, mugaz gaindiko herritarrek etorkizunean izango duten jarrera hobeto ulertu ahal izateko.


Jarduerak horiek osasun krisiaren aurretik egiten zituzten bezalaxe egiten jarraituko dituztela baieztatu edo ukatu duten herritarrek



Mugaz gaindiko herritarren arabera, muga irekitzearekin batera kalterik txikienarekin berrabiaraziko diren jarduerak **osasun zerbitzuak (%95,6)** eta **jarduerak pertsonalak (%94)** izango dira.

Mugaz gaindiko herritar gehienek mugaz gaindiko **jarduerak osasun krisiaren aurretik egiten zituzten bezalaxe** egiten jarraituko dituzten arren, **herritar batzuek ez dute hala egingo mugak ireki ostean, eta horretarako arrazoi nagusiak identifikatu ziren.**

Jarduera horiek osasun krisiaren aurretik egiten zituzten bezalaxe egiten ez jarraitzeko arrazoi nagusiak



Honako hauek dira mugaz gaindiko herritarrek jarduera horiek berriro ez egiteko arrazoi nagusiak: **orokorrean jarduerak egiteari uztea (%34,5), osasun krisiaren ondorio diren arrazoiak (%26,8) eta mugaz bestalde jarduerak egiteko interesa galdu izana (%19,5).**

- Oro har jarduera hau uztea erabaki dut
- Jada ez dut mugaren beste aldean jarduera hau gauzatzeko interesik
- Jarduera hau gauzatzeko jarraituko dut nire lurraldean bertan
- Ez dut gauzatzeko osasun krisitik eratorritako arrazoiengatik
- Bestelakoak

Azkenik, mugaren itxierak herritarren eguneroko bizitzan zer nolako eragina izan duen zehaztasunez jakin ahal izateko, labur-labur aurkitutako **oztopo nagusiak** identifikatzeko eskatu zitzaizkien. Hala, **herritarren 1.400 testigantza** baino gehiagoren artean, haiek gehien aipatutako arazoak identifikatu dira:


- Herri eta/edo eskualde batzuetako biztanleen kasuan mugitzeko askatasunaren galera oztopoa izan da bertan ez zeuzkaten oinarritzko ondasun edo zerbitzu batzuk erabili ahal izateko orduan.
- Mugaren itxierak eragindako auto-ilara luzeek funtsezko jarduerak gauzatzeko lekualdaketa zaildu/ezinezko bihurtu dituzte.
- Frantzia hezkuntza- eta/edo prestakuntza-jarduerak egiteko xedez lekualdatzeko zailtasunak.
- Irizpide desberdinak gobernuaren arabera, mugako kontrolean aurkeztu beharreko frogagiriaren inguruan (lan-arrazoiengatik lekualdatzea eta/edo lekualdaketa pertsonalak, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko egindakoak adibidez).
- Bigarren etxebizitzara bidaiatu ezin izatea, bertako beharrezko erantzuteko.
- Senideak eta/edo lagunak bisitatu ezin izatea.

Mugaz gaindiko lankidetzaren garrantzia mugaz gaindiko herritarrentzat

Mugaz gaindiko herritarrek mugaldeko hiru lurraldeen arteko lankidetzaren (Euroeskualdearen lan-esparrua) inguruan duten iritzia ezagutzeko xedez, beste galdera batzuk egin zitzaizkien horren inguruan. **Lankidetzaren garrantziaren gaineko balorazio orokorra** egiteko eta “normaltasun berrian” **haien eguneroko bizitza errazteko balizko jarduketak** identifikatzeko eskatu zitzaien.

Mugaz gaindiko herritarrek egungo egoeran haien bizitza hobetzeko xedez mugaz gaindiko lankidetzaren indartzeak duen garrantziaren inguruan egindako balorazioa ageri da jarraian. Hala, oro har herritarrentzat **mugaz gaindiko lankidetzaren oso garrantzitsua dela** ikus daiteke. Hain zuzen ere, %2k baino ez du esan ez duela garrantzitsutzat jotzen.


Mugaz gaindiko herritarren eguneroko bizitza hobetzeko xedez mugaz gaindiko lankidetzaren indartzearen garrantzia



Mugaz gaindiko herritarren artean %83,8ren ustez ezinbestekoa edo oso garrantzitsua da mugaz gaindiko lankidetzaren mugaz gaindiko herritarren eguneroko bizitza hobetzeko.

Era berean, mugen itxierak mugaz gaindiko herritarren eguneroko bizitzan izandako eragina murrizten lagun dezaketen ekintzak edo jarduketak planteatu ziren, mugaz gaindiko lankidetzaren baitan. Hala, mugaz gaindiko herritarren artean %75,1en ustez garrantzitsua da **mugaz gaindiko jardueraren ekonomia sustatzea** eta horren atzetik **kirolaren, kulturaren eta gizartearen arloko ekintzei babesa ematea** (%47,9).

Herritarrek mugen itxierak haien eguneroko bizitzan izandako eragina murrizteko lehenetsitako jarduketaren ehunekoa



Aurrekoaz gain, herritarrei garrantzitsutzat jotzen dituzten ekimen desberdinak aipatzeko aukera eman zitzairen, askatasun osoz. Testigantza desberdinen artean patroik komun bat identifikatu zen: **mugaz gaindiko herritarrei ikusgaitasun handiagoa emateko beharrezkoa**. Pertsona horietako askoren iritziz, mugaz gaindiko herritarren fluxua dela-eta, beharrezkoa da **haien mugaz gaindiko izaera indartzea** lurraldeen artean askatasun handiagoz zirkulatu ahal izateko eta administrazio-dokumentazioaren aldetik mugapen gutxiago izateko.

Azkenik, **Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdea mugaz gaindiko herritarren artean % 53,9k bakarrik ezagutzen duela** azalatu zen, mugaz gaindiko lurraldeen garapen ekonomiko, sozial eta kulturalari mesede egiteko proiektuak sustatzeko lankidetzarako erakundea izanik, eta **herritar guztien artean % 46,1ek ez duela Euroeskualdea ezagutzen**.

1.3. Mugaz gaindiko langileen ezaugarriak


Arestian esan den bezalaxe, **inkestan parte hartu zuten pertsonen artean %31,5 mugaz gaindiko langileak dira**. %31,5 horretatik %23,5 arrazoi sozioekonomikoengatik ere lekualdaten da.

Mugaz gaindiko pertsonen artean %31,5ek lanagatik gurutzatzen du muga.




Lehenik eta behin, mugaz gaindiko langileen ezaugarriak aztertu ziren, lan-sektoreak, lanbide zehatza eta lekualdaketaren arrazoiak identifikatuz. Gehienak **merkataritzaren, ostalaritza eta turismoaren sektorekoak ziren (%27,5)** eta atzetik zetozen **zerbitzu profesionaletakoak (%14,6), industriaren eta energiaren sektorekoak (%13,3)** eta **hezkuntzakoak (%10)**, hurrenez hurren. Ordezkaritza gutxien izan zuten sektoreak garraioa eta mugikortasuna (%1,4) eta gizarte-zerbitzuak (%2,1) izan ziren. Gainera, **langileen artean %71,4 besteren konturako langileak ziren; %25,4, aldiz, autonomoak.**

Mugaz gaindiko langileen lan-sektore nagusiak




Langileen lanbidea



Mugaz gaindiko langileen artetik **%27,5ek merkataritzaren, ostalaritzaren eta turismoaren sektorean** egiten du lan eta atzetik ditu **zerbitzu profesioaletan lan egiten dutenak (%14,6)**. Era berean, mugaz gaindiko langileen artetik **%71,4 besteren konturako langileak dira.**

Aurrekoaz gain, mugaz gaindiko langileek lekualdatzeko dituzten lan-arrazoiak ulertzeko asmoz, **lekualdaketen kasuistika espezifikoaren inguruan** galdetu zitzairen. Horrela, langileen artetik **%48 bere lanpostua mugaz gaindiko beste lurralde batean dagoelako lekualdatzen da, %26,1 bere bezeroen kokapenagatik edo zerbitzu espezifikoak eskaintzeko eta %21,5 ondasunak edo zerbitzuak erosteko lana dela eta.**

Mugaz gaindiko lurraldeen artean mugitzeko lan-arrazoiak




Mugaz gaindiko langileen lekualdaketerako lan-arrazoi nagusia **haien lanpostua mugaren bestaldean dagoela da (%48).**

Mugaz gaindiko langileen ezaugarriak ezagutu ostean, galdera batzuk egin zitzaizkien **COVID-19ak eta haren ondorioz muga itxi behar izanak nola eragin dien** jakiteko eta **eragin hori murriztu dezaketen neurriak** identifikatu ahal izateko.

Hala, langileen artetik **%46,5ek** adierazi zuen mugaren itxierak **bete-betean eragin ziola; %21ek, aldiz, asko eragin ziola, eta %14,8k nahikoa eragin ziola. Merkataritzaren sektoreko langileak izan ziren mugaren itxieraren eragina gehien nabaritu zutenak, haien ustez (langileen artetik %34,5ek uste du biziki eragin diola).**


COVID-19aren krisiak iraun bitartean muga itxita izateak mugaz gaindiko langileen eguneroko bizitzan izandako eragina



Mugaz gaindiko langileen artetik **%67,5i biziki edo asko eragin dio mugaren itxierak.**

Zentzu horretan, eta COVID-19ak mugaz gaindiko langileengan izandako eragina kontuan hartuta, **mugen itxierak** langile horiek lan egiten duten **enpresetan izandako eragina ulertzeko ariketa** egin zen. Hala, mugaz gaindiko langile horien enpresen artetik **%56,3k ezohiko neurriak hartu ditu COVID-19aren eraginaren ondorioz** eta /edo muga itxi izanaren ondorioz; enpresen artetik **%33,7k**, berriz, **ez du neurririk hartu**.


Ezohiko neurrien ezarpena enpresetan



Mugaz gaindiko langileak dituzten enpresen artetik **%53,3k ezohiko neurriak hartu ditu COVID-19aren eraginaren ondorioz**.

Hala izanik, gehien hartu diren neurriak **telelana (%54,2)** eta **ABEEE Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteak (%39,1)** izan dira, eta horien atzetik **lanaldi murrizketak (%27,7)** eta **kaleratzeak (%6,6)**. Era berean, hartutako beste neurri batzuen berri emateko aukera eman zitzaien askatasun osoz eta langileen artetik **%5,9k jarduera guztiz etetea** aipatu zuen neurri gehigarri gisa.

Enpresek hartutako ezohiko neurri nagusiak



Mugaz gaindiko langileak dituzten enpresek hartutako neurri nagusiak **telelana (%54,2)** eta **ABEEEak (%39,1)** izan dira.

Azkenik, mugaren itxierak langileengan zer nolako eragina izan duen zehaztasunez jakin ahal izateko, labur-labur neurri horiek ezartzerakoan aurkitutako **oztopo nagusiak** identifikatzeko eskatu zitzairen. Hala, **langileen 480 testigantza** baino gehiagoren artean, haiek **gehien aipatutako arazoak** identifikatu dira:

- Aurrez aurreko zerbitzuak eskaintzeko edo bezeroekin bilerak egiteko mugikortasun arazoak.
- Atzerapenak mugaz gaindiko lanean eta lan-ordutegia bete ahal izatearen inguruko ziurtasunik eza (mugako auto-ilara luzeen ondorioz edo baita muga zeharkatu ezin izatea ere, zein dokumentazio aurkeztu behar den ez jakiteagatik).
- ABEEE espedienteak izapidetzeko, finantzaketa lortzeko eta jarduerari berriro ekiteko prestatzeko zailtasunak.

- Mugaz gaindiko langile batzuek ez dituzte telelana eraginkortasunez egiteko tresnak/baliabideak/espazioak eta enpresek ez dizkiete eskaini.
- Eraginkortasun txikiagoa enpresaren errendimenduan.


Mugaz gaindiko langileek **mugaren itxieraren ondorioz identifikatu dituzten oztopoen kasuan**, identifikatu diren arazo nagusiak lurraldeen arteko **mugikortasun arazoak** izan dira (mugako auto-ilara luzeak, aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruko irizpide desberdinak lurralde bakoitzean, etab.) eta horrek oro har haien errendimenduan eragin negatiboa izan duela adierazi dute. Aurrekoaz gain, galdetegian **langileentzako eta enpresentzako diru-laguntzak lortzeko zailtasunekin** eta beste **zerga- edo lan-izapide batzuekin zerikusia duten arazoak** adierazi dituzte mugaz gaindiko langileek, gobernu desberdinen irizpideak bat ez datozelako eta ezohiko egoera honetan erantzun argirik eman ez delako.

Mugaz gaindiko lankidetzaren garrantzia mugaz gaindiko langileentzat

Herritarrei egindako inkestaren ildo beretik, galdera batzuk egin ziren **mugaz gaindiko langileek mugaldeko hiru lurraldeen arteko lankidetzaren inguruan duten iritzia** ezagutzeko. **Lankidetzaren garrantziaren gaineko balorazio orokorra** egiteko eta “normaltasun berrian” **haien eguneroko bizitza errazteko balizko jarduketak** identifikatzeko eskatu zitzairen.

Mugaz gaindiko langileek egungo egoeran haien lan-egoera hobetzeko xedez mugaz gaindiko lankidetzaren indartzeak duen garrantziaren inguruan egindako balorazioa ageri da jarraian. Hala, oro har langileentzat **mugaz gaindiko lankidetzaren ezinbestekoa dela** ikus daiteke. Hain zuzen ere, **ezinbestekoa da ia %80rentzat eta %3,1ek baino ez du esan ez duela garrantzitsutzat jotzen.**


Mugaz gaindiko langileen egoera hobetzeko xedez mugaz gaindiko lankidetzaren indartzearen garrantzia



Mugaz gaindiko langileen artean **%91ren** ustez **ezinbestekoa edo oso garrantzitsua** da mugaz gaindiko lankidetzaren indartzeak, haien **lan-baldintzak hobetzeko.**

Era berean, mugen itxierak mugaz gaindiko langileen eguneroko bizitzan izandako eragina murrizten lagun dezaketen ekintzak edo jarduketak planteatu ziren, mugaz gaindiko lankidetzaren baitan. Hala, mugaz gaindiko langileen artetik **%56,8**ren aburuz garrantzitsua da **langileei lan-kudeaketetan laguntzea** eta bigarrenik, **mugaz gaindiko lana sustatzeko ekimenak sustatzea (%46,7)**.

Langileek mugen itxierak haien eguneroko lanean izandako eragina murrizteko lehenetsitako jarduketaren ehunekoa



Aurrekoaz gain, mugaz gaindiko langileei garrantzitsutzat jotzen dituzten ekimen desberdinak aipatzeko aukera eman zitzairen, askatasun osoz. Patroi komun bat identifikatu da testigantza guztien artetik, honako hauek gailendu direlarik: **lurraldeen artean kohesioa sustatzeko beharrizana (%4,8)** eta **mugaz gaindiko langileei ikusgaitasun handiagoa ematea (%1,3)**. Pertsona horietako askoren iritziz, mugaz gaindiko langileen fluxua dela-eta, beharrezkoa da **haien mugaz gaindiko lankidetzaren indartzea** lurraldeen artean askatasun handiagoz zirkulatu ahal izateko eta administrazio-dokumentazioaren aldetik mugapen gutxiago izateko. Ideia hori garrantzitsutzat jo zen, mugaz gaindiko langileentzat zein herritarrentzat. Gainera, **hiru lurraldeetako agintaritzek modu bateratuan lan egiteko beharrizana** identifikatu zuten langileek.

Azkenik, **mugaz gaindiko langileen artetik %62,4k Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea ezagutzen duela** ikusi da; mugaz gaindiko langileen artetik %37,6k, aldiz, ez du Euroeskualdea ezagutzen.



Mugaz gaindiko herritarrei egindako inkestaren emaitzak



%92,1

Muga arrazoi sozioekonomikoengatik zeharkatzen duten herritarrak




%31,5

Muga lan-arrazoiengatik zeharkatzen duten herritarrak

Pirinio Atlantikoak, ordezkari handiena duen lurraldea

%75

Muga hilean behin baino gehiagotan zeharkatzen duten herritarrak (**%88k** autoz zeharkatzen du)



Mugaren itxierak izandako eragina

Mugaren itxierak guztiz edo asko eragin dien pertsona kopurua



%66,9

Mugaz gaindiko herritarren artean

%67,5

Mugaz gaindiko langileen artean

%89,4

Herritar guztien artean mugaz bestalde jarduerak gauzatzeari utzi diotenen kopurua

%56,3

Mugaz gaindi langileak dituzten enpresen artean ezohiko neurriak hartu dituen enpresa kopurua

Mugaz gaindiko lankidetzaren irtenbide gisa

% 83,3

Herritar kopuru honentzat ezinbestekoa edo oso garrantzitsua da

% 91

Langile kopuru honentzat ezinbestekoa edo oso garrantzitsua da

Mugaz gaindiko lankidetzaren ezinbestekoa da mugaz gaindiko herritarren eta langileen baldintzak hobetzeko.

Gehien eragindako jarduerak sozioekonomikoak



%80,1
erosketak



%62,1
jarduerak personalak



%49,4
kirol jarduerak eta aisialdiko jarduerak



%39,9
kultur jarduerak

Gehien hartzen diren ezohiko neurriak



%54,2
telelanerako neurriak



%39,1
ABEEE



%27,7
lanaldi murrizketak




%6,5
kaleratzeak

Mugaz gaindiko langileen arazoak

COVID-19aren krisiagatik bizitako egoera dela-eta, mugaz gaindiko langileek inoiz bizi gabeko egoera bati aurre egin behar izan diote, aurreko orrialdeetan azaldu den bezalaxe. Kasu gehienetan **tefelana ezarri da** eta posible den eginkizun guztietarako lan-modalitate hori ezartzeko eskatu zaie mugaren bi aldeetako enpresei, salbuespenik egin gabe. Hala ere, ez da erraza izan egoera hori errealitatera eramatea eta praktikan **bi arazo** agertu dira, mugaz gaindiko langileengan eragina izan dutenak:

- Lehenik eta behin, telelana posible izan ez denean eta langileek lanera joateko muga zeharkatu behar izan dutenean, **mugaz gaindiko langileak direla justifikatzeko irizpide bateraturik ez dagoela** ikusi dute, hasiera batean ez baitzegoen hori egiaztatzeko galdetegi espezifikorik eta beraz, muga kontrolatzeko ardura duten agintaritzen esku geratzen zen erabakia.

Mugaz gaindiko langile-fluxuak



Iturria: Mugaz gaindiko enpleguaren diagnostikoa Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdean (2017)

Ildo horretatik, jasotako jarraibidetako batzuk izan ziren mugaz gaindiko langileak zirela frogatzea (kontratuarekin, enplegatzaileak emandako ziurtagiriarekin, etab.) eta lekualdaketa justifikatzeko egoitza-ziurtagiria edo errolda-ziurtagiria erakustea. Bigarren puntu horrek sortu ditu gatazka gehien, Frantzian erroldaren kontua ez baita Espainian bezalakoa. Hala, Frantzian *attestation sur l'honneur* (zinpeko adierazpena) daukate eta agiri horren inplikazioak ez dira berdinak Espainiako araubidean.

- Beste alde batetik, mugaz gaindiko langileek **prestazioak** jasotzeko eskubidea dute. Jakina den bezalaxe, pandemiak ekarritako krisi ekonomikoari aurre egiteko, EBko estatu gehienek estimulu-neurri desberdinak hartu dituzte, lan-harremana ezinbestean eten zaien langileen aldeko ordainketak barne hartzen dituztenak. Kasu horretan, eta Zergapetze Bikoitzaren Hitzarmenaren ondoretarako, kalte-ordainen parekoak dira ordainketa horiek eta beraz, toki eta baldintza berdinetan ordaindu beharko dira haiei dagozkien zergak.

Nolanahi ere, **mugaz gaindiko herritarrak kalteberatasun egoeran egon dira, erakunde arduradunen partetik aurreikuspen eta koordinazio falta egon delako:**

- **Espainian aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea aplikatu zaien langileentzako galera gehigarria, jasotako zenbatekoa kontuan hartuta:** egoiliarrak ez direnei aplikatutako ABEEEn kasuan, ehuneko gehigarri bat atxikitzen da eta langileek jasotzeari uzten dioten kopuruaren % 30ari gehituta, murrizketa pilatzen da eta hala, mugaz gaindiko langileen kasuan soldataren erdira iristen da murrizketa hori. Azken horiek ezingo dute datorren urtera arte berreskuratu, hau da, Errentaren Aitorpena egin arte.

2. kapitulua | Euroeskualdeko proiektuen garapena egungo egoeran

COVID-19ak eta haren ondorioz muga ixteak Euroeskualdeko sektore estrategiko nagusien proiektuetan ere izan du eragin negatiboa. Zentzu horretan, Euroeskualdeko proiektu-kideen ikuspegia ezagutzea ezinbestekoa da lehenetsuneko sektore horietan ager daitezkeen ondorio negatiboen aurrean esku hartzeko.

COVID-19ak izandako eraginaren gaineko analisiaren ardatz gisa, apirilean **inkesta bat egin zitzaizen Euroeskualdeko sektore estrategikoetako proiektuetako kideei**. Inkesta-prozesu horren helburua **COVID-19ak** proiektuen ezarpenean **izandako eraginaren inguruko informazioa biltzea** izan zen, ostean zentzu horretan erantzun ahal izateko eta Euroeskualdearen lana gidatu ahal izateko.


Oro har, inkesta honetan ondorioztatu zen COVID-19ak proiektuetan izandako **eragina** nahiko **esanguratsua** zela kideen iritziz, jada momentu hartan egoerak zenbait proiektu eta haietako fase eta/edo jarduera batzuk gauzatzeko arazoak sortzen baitzituen. **Inkestan parte hartu zuten kideen artetik %69,5en ustez, COVID-19ak nahiko edo asko eragin die haien proiektuei**. Era berean, kideek momentu hartan identifikatutako arazo nagusiak **egutegi aldaketak eta/edo atzerapenak, lekualdatzeko arazoak eta ekintza edo jardueraren bat gauzatu ezin izatea** izan ziren.

Horregatik, eta inkesta honen helburua hasiera batean konfinamenduak eta mugen itxierak Euroeskualdeko proiektuetan zer nolako eragina izan duen ezagutzea zela kontuan hartuta, **beste galdetegi bat egin zen, testuinguru berri batean oinarritutakoa: “normaltasun berrirako” prozesua**. Egoera berri horretan, kideek deskonfinamenduaren eta mugen balizko irekieraren inguruan zuten ikuspegia ezagutu nahi izan zen, eta baita orain proiektuak nola kudeatzen ari diren eta etorkizunera begira zer aurreikusten duten ere.

2.1. COVID-19ak mugaz gaindiko proiektuetan izandako eragina

Mugaren itxierak eragina izan du mugaz gaindiko lurralde desberdinen proiektuen ezarpenean eta garapenean. Gauzak horrela, **Euroeskualdeko proiektu kideen artetik %21,9k uste du parte hartzen ari diren proiektuari oso-osorik eragin diola, %16,2k eragina asko nabaritu duela uste du eta %37,8k nahikoa nabaritu duela**.


COVID-19aren krisiak iraun bitartean muga itxita izateak proiektuen burutzapenean izandako eragina



COVID-19ak **biziki edo asko kaltetu ditu** Euroeskualdeko proiektuen **%37,8**.

Proiektu desberdinetan izandako arazoen tipologian sakontzeko asmoz, egoera horretan aurkitutako oztopo nagusiak zeintzuk izan diren galdetu zitzairen. Gehien errepikatu ziren arazoak **lekualdatzeko arazoak eta mugikortasun arazoak (%86,5)**, **proiektua burutzeko epeak (%78,4)** eta **aurrez aurreko bilerarik egin ezin izatea (%67,4)** izan ziren. Hautemandako arazoak antzekoak izan ziren bi egoeretan (konfinamenduan eta “normaltasun berrirako” prozesuan).

COVID-19tik eratorriak diren eta proiektuaren burutzapenari eragin dioten arazoen tipologia




Zentzu horretan, aurrez aurreko jarduerak egitea ezaugarri duten sektoreen kasuan, kulturaren, hezkuntzaren, gazteriaren eta abarren kasuan adibidez, batez ere proiektuen burutzapen epeekin izan dituzte arazoak (jarduera horiek egiteko atzerapena) eta lekualdatzeko arazoak eta mugikortasun arazoak ere izan dituzte. Era berean, proiektuaren faseren bat aurrera eraman ezin izateagatik, nekazaritza izan da sektorerik kaltetuena.

Euroeskualdeko proiektuetan gehien identifikatu diren arazoak **lekualdatzekin eta mugikortasunarekin (%86,5)** eta **burutzapen epeekin (%78,4)** zerikusia dutenak izan dira.


Aurrekoaz gain, denbora igaro ahala eta “normaltasun berrirantz” goazen heinean arazo horiek izango duten bilakaera ulertzeko, **COVID-19aren ondorio diren arazoak etorkizunean zein puntutaraino errepikatuko diren galdetu zitzairen. Proiektu kideen artetik % 81,1ek adierazi zuen arazoak errepikatu egingo zirela mugak guztiz ireki arte; % 8,1ek, aldiz, arazoak errepikatuko ez zirela adierazi zuen.**

Mugak irekitzen direnean arazoak errepikatuko direla baieztatzen edo ukatzen duen kide kopuruaren ehunekoa



Euroeskualdeko proiektuetako kideen artetik **%81,1ek ondorioztatu zuen COVID-19aren ondorio diren arazoak errepikatu egingo direla mugak guztiz ireki arte.**


Kideen iritziz, **arazo horiek behin eta berriro errepikatuko dira kasuen %30ean, sarritan errepikatuko dira kasuen %23,3an eta nahikotxo errepikatuko dira kasuen %26,7an.** Azpimarratu beharra dago kide bakarrak adierazi zuela arazoak gutxi errepikatuko zirela.



Kideen artetik **%53,3k** uste du arazoak **behin eta berriro edo sarritan errepikatuko direla** mugak guztiz ireki arte.

Era berean, garrantzitsutzat jo zen **COVID-19ak eta mugaren itxierak proiektuen burutzapenean izandako eragina** ulertzea. Horrela, apirilean Euroeskualdeko kideei egindako inkestan, gehienek adierazi zuten hartutako neurriek bilerak edo jardunaldiak atzeratzearekin zerikusia izan zutela. Galdetegi berri horretan, proiektuen **%73ren kasuan faseak eta/edo jarduerak atzeratu dira**, konfinamendu-egoerarekin bat etorriz. Gainera, **proiektuen %56,8ren kasuan jarduerak eta/edo faseak online formatura egokitu behar izan dira eta %40,5en kasuan faseak eta/edo jarduerak eraldatu edo aldatu behar izan dira orokorrean.**

Kideek proiektuetan gauzatutako ekintzak



Euroeskualdeko proiektuen %13,5ek bakarrik ez du funtsezko aldaketarik jasan hura gauzatzeko, garatzeko eta ezartzeko orduan.

Proiektuek etorkizunean izango dituzten erronkak ulertzeko asmoz, behin muga irekita Euroeskualdeko proiektukideek gainditu beharko dituzten erronkak identifikatu ziren. **Kideen artetik %75,7ren ustez gobernuak ezarritako osasun eta segurtasun neurriak betetzea proiekturako erronka izango da etorkizunean.** Horrez gain, **proiektuko giza baliabideen eta baliabide materialen antolakuntza (%40,5) eta hasieran aurreikusitako epeak betetzea (%35,1)** oso garrantzitsuak direla adierazi zuten.

Proiektuek mugak irekitzean izango dituzten erronkak




Gainera, kideek aipatutako beste erronka bat litzateke **herritarrek** berriro ere aurrez aurreko tailerretan, jende askoko ekitaldietan, hezkuntza zentroetan eta abarretan parte hartzeko orduan **izan dezaketen erreparoarri konponbidea bilatzea.**

Kideen artetik **%75,7ren ustez, gobernuak ezarritako osasun eta segurtasun neurriak betetzea** proiekturako erronka izango da etorkizunean.


2.2. COVID-19ak sektore estrategikoetan izandako eragina

COVID-19ak proiektu estrategikoetan izandako eragina aztertu ondoren, **kide horien sektore estrategikoetan** izandako eraginaren analisisia egin zen. Hala, ordezkaritza handiena lortu zuten sektoreak **kultura (%32,4), hezkuntza (%13,5) eta nekazaritza (%13,5)** izan ziren.



Behin kideen lan-sektore nagusiak identifikatuta, **COVID-19ak haien erakundeari nola eragin zien galdetu zitzairen**. Kideen artean **%64,9k aipatu zuten telelana egiteko neurriak hartu zituela**; **%59,5ek**, aldiz, **jarduera eten edo moteldu zela** eta **%43,3k lan-dinamikak aldatu zirela**.


Erakunde desberdinek izandako arazoak




Euroeskualdeko proiektu-kide bakar batek ere ez du esan COVID-19ak haren erakundean eraginik izan ez duenik; bestalde, **% 64,9k telelana egiteko neurriak hartu direla adierazi du**.

Ostean, kideei eskatu zitzairen mugaren itxierak haien erakundean ekonomiaren eta lanaren aldetik izango zuten eragina baloratzeko. Hala, **%29,7k adierazi zuten mugaren itxierak erakundeari ekonomikoki zertxobait eragingo ziola** eta **%24,3k adierazi zuten lanaren aldetik zertxobait eragingo ziola**.

Erakundean izandako eragin ekonomikoa




Erakundean izandako lan-eragina



Oro har, kideen ustez **muga itxi izanak ez du eragin handiegia izango** haien erakundean.

Kideen ustez, mugen itxierak beste ondorio mota batzuk ere ekarriko ditu mugaren itxierak, antolakuntzaren, horniduraren eta logistikaren, merkataritzaren eta abarren aldetik esaterako. Horregatik, haien erakundeetan bestelako ondorioz egon zitekeen galdetu zitzaizen eta honako balorazio hauek lortu ziren: kideen artetik **%48,6k** adierazi zuen mugen itxierak **eragin soziala** izango zuela erakundeetan, **%27k ekoizpenean**, **%16,2k merkataritzan**, **%13,5ek horniduran eta logistikan**, eta **%10,8k antolakuntzan**. Era berean, beste ondorio batzuk kontsideratu ziren, hala nola metodologiaren, lankidetzaren, lan-kulturaren eta abarren aldetik.

COVID-19aren krisiak ekarritako beste ondorio batzuk




Euroeskualdeko proiektukideen artetik **%48,6k** adierazi zuen mugaren itxierak **eragin soziala** izango zuela haien erakundeetan.

Mugaz gaindiko lankidetzaren garrantzia Euroeskualdeko proiektukideentzat

Herritarrei egindako inkestaren ildo beretik, galdera batzuk egin ziren **Euroeskualdeko proiektu-kideek mugaldeko hiru lurraldeen arteko lankidetzaren inguruan duten iritzia** ezagutzeko, Euroeskualdeko proiektuen esparruan. **Lankidetzaren garrantziaren gaineko balorazio orokorra** egiteko eta “normaltasun berrian” **haien eguneroko bizitza errazteko balizko jarduketak** identifikatzeko eskatu zitzaizen.

Kideek mugaz gaindiko lankidetzaren indartzearen garrantziaren inguruan egindako balorazioa ageri da jarraian. Hala, oro har kideentzat **mugaz gaindiko lankidetzaren ezinbestekoa dela** ikus daiteke. Hain zuzen ere, **ezinbestekoa da ia %56,8rentzat eta kide bakar batek ere ez du uste garrantzitsua ez denik**.


Mugaz gaindiko proiektuetan izandako eragina murrizteko xedez mugaz gaindiko lankidetzaren garrantzia



Euroeskualdeko proiektukideen artetik **%56,8ren** ustez, mugaz gaindiko lankidetzaren **ezinbestekoa** da **COVID-19ak proiektuetan izandako eragina murrizteko**.

Era berean, mugen itxierak proiektuetan izandako eragina murrizten lagun dezaketen ekintzak edo jarduketak planteatu ziren, mugaz gaindiko lankidetzaren baitan. Euroeskualdeko proiektu-kideen artetik %73ren ustez garrantzitsua da **konfinamenduaren iraupenaren arabera proiektuak berriro antolatzeko akordioak lortzea, proiektuetako kideen artean jardunbide egokiak partekatzeaz (%51,4) eta proiektuaren helburuak sektoreen beharrian berrietara egokitzeaz (%51,4) gain.**

Kideek mugen itxierak proiektuetan izandako eragina murrizteko lehenetsitako jarduketan ehunekoa



Euroeskualdeko proiektu kideen artetik %73ren ustez, proiektuak berriro antolatzeko akordioak lortzea funtsezkoa da COVID-19ak mugaz gaindiko proiektuetan izandako eragin negatiboa murrizteko.

Aurrekoaz gain, kideei garrantzitsutzat jotzen dituzten ekimen desberdinak partekatze aukera eman zitzaizkien, askatasun osoz. Hala, patroi komun bat identifikatu zen testigantza desberdinen artean eta **proiektuen faseak eta/edo jarduerak digitalizatzeko eta online modalitatera egokitzeko laguntzen beharria** gailendu zen.

Azkenik, **Euroeskualdeak prozesu honetan zehar laguntzeko eskaini ditzakeen irtenbideen** inguruko hausnarketa egiteko eskatu zitzaizkien kideei. Zentzu horretan, hurrengo jarduketa eta/edo iradokizunak gailendu dira:


- Finantzaketa planak mantentzea, jada kideen artean finkatuta dauden ikerketa-ildoekin jarraitu ahal izateko.
- Lurraldeen arteko lotura transmititzeko funtsezko tresna gisa funtzionatzea eta alde bakarrak hartutako neurriek izan ditzaketen ondorio negatiboak aintzat hartzea (mugen itxiera, esate baterako).

- “Ageriko eragile” gisa jardutea, mugaz gaindiko truke-eremuei bestelako tratua eman behar zaiela gogorarazteko.
- Lan partekatua egiteko proiektuen alde egindako apustua indartzea, ezagutza komuna sortzeko. Ez litzateke derrigorrez aurrez aurreko truke “tradizionalaren” bitartez egin beharko, trukerako prozesu digitalen edo online prozesuen, azterlanen, praktika-bankuen, mugaren bi aldeetako eragileen datu-baseen eta abarren bidez baizik.
- Jardunbide egokiei ikusgaitasuna ematea, esperientziak partekatzeko foroak antolatuz.
- Enpleguaren atarian mugaz gaindiko komunitateari zuzendutako informazio espezifiko biltzea eta COVID-19aren emaitza den atzeraldi ekonomiko honetan enplegurako aukerak dinamizatzea.



Euroeskualdeko proiektu kideei egindako inkestaren emaitzak

Mugaz gaindiko proiektuetan izandako eragina



% 37,8

COVID-19aren eragina guztiz edo nabarmen nabaritu duten Euroeskualdeko proiektuen kopurua

Euroeskualdeko proiektu desberdinetan gehien identifikatu diren arazo nagusiak



%86,5
Lekualdaketak eta mugikortasuna



%78,4
Proiektuak burutzeko epeak



%67,6
Aurrez aurreko bilerak egin ezin izatea



%51,4
Faseren bat burutu ezin izatea

% 81,1

Euroeskualdeko kideen artean, ehuneko honen arabera COVID-19aren ondorio diren arazoak errepikatu egingo dira mugaz guztiz ireki arte



%75,7

% 73

Proiektuen artean kopuru honek atzerapenak izan ditu faseei eta/edo jarduerari dagokienez

Etorkizunera begira, **erronka nagusia** gobernuak ezarritako **osasun eta segurtasun neurriak betetzea izango da.**

Sektore estrategikoetan izandako eragina

Euroeskualdeko proiektu kideen ordezkariak handiena duten sektoreak



%32,4
Kultura



%13,5
Hezkuntza



%13,5
Nekazaritza



%8,1
Gazteria



%5,4
Osasuna

Sektore estrategikoetako enpresek hartutako neurriak



Kideen ustez, muga itxi izanak **ez du eragin handiegia izango** haien erakundeetan.

Mugaz gaindiko lankidetzaren irtenbide gisa

% 56,8

Langile kopuru honentzat ezinbestekoa da

Mugaz gaindiko lankidetzaren berebizikoa da COVID-19ak mugaz gaindiko proiektuetan izandako eragina arintzeko.

Eranskina

Inkesten metodologia

A.1. Mugaz gaindiko herritarrei egindako inkesta

A.2. Euroeskualdeko proiektuetako kideei egindako inkesta

A.1. Mugaz gaindiko herritarrei egindako inkesta

Identifikazioa

Operazioaren izena: Mugen itxierak mugaz gaindiko herritarrengan izandako eragina

Maiztasuna: Inkesta bakarra

Operazio mota: Ausazko laginketa bidezko inkesta

Metodologia, datuen jatorriaren arabera: Lehen mailako datuen bilketa zuzena, ausazko laginketa bidez

Helburuak

Inkestaren helburu orokorra COVID-19aren pandemiak ekarritako egoerak eta Frantziaren eta Espainiaren arteko mugaren itxierak Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdeko herritarren eguneroko bizitzan izandako eraginaren gaineko informazioa biltzea da, batez ere mugaz gaindiko langileak diren biztanleen kasuari erreparaturik. Hala, horri guztiari lotutako erronka edo arazo nagusiak identifikatu dira eta aipatutako herritarrek pandemiaren eta mugaren itxieraren eragina murrizten lagun dezaketen neurri desberdinen inguruan egindako balorazioa bildu da.

Lau helburu espezifikoetan bana daiteke helburu orokor hori:

1. Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdeko biztanleriaren ezaugarriak biltzea, mugaz gaindiko mugikortasunaren arloan dituzten ohiturak kontuan hartuta.
2. Mugaren itxierak kaltetu dituen ohitura sozioekonomiko nagusiak identifikatzea.
3. Osasun krisiak eta mugen itxieran lan-eremuan izandako eragina deskribatzea.
4. Inkestan parte hartu zuten herritarrek mugaz gaindiko lankidetzaren garrantziaren inguruan egindako balorazioaren gaineko adierazle bat lortzea, batez ere mugaren itxiera bezalako ezohiko egoerarako.

Eremua

Biztanleria-eremua:

Inkesta honen biztanleria-eremua Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdean bizi den biztanleria da.

Eremu geografikoa:

Inkesta honetan agertzen den eremu geografikoa Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdea da.

Denbora-eremua:

Mugaz gaindiko mugaz gaindiko biztanleengan izandako eraginari buruzko inkesta honen denborazko erreferentzia 2020ko martxotik ekainera bitarteko hilabeteena da (bat dator muga itxita egon den denborarekin).

Behin bakarrik egin da inkesta hau.

Laginaren diseinua

Hedapen askeko inkesta baten bidez egindako ausazko laginketa izan denez, berez ez da laginaren diseinurik egin.

Dena den, laginaren adierazgarritasuna bermatzeko, %95eko konfiantza-mailarako bi balio objektibo eta %5eko errore-marjina proposatu ziren.

- Mugaz gaindiko biztanleriaren kasuan, lurralde mugakideetako 1.463.392 biztanleko zifraren arabera egin zen kalkulua: Pirinio Atlantikoak (679.354 biztanle), Gipuzkoa (713.007 biztanle) eta Ipar-mendebaldea eta Pirinioak (71.031 biztanle). Balio objektiboa **385 erantzuneko** izan zen eta horien artetik 179 Pirinio Atlantikoetatik, 187 Gipuzkoatik eta 19 Nafarroatik etorri behar ziren.
- Mugaz gaindiko langileen kasuan, *Mugaz gaindiko enpleguaren diagnostikoa Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdean (2017)* izeneko diagnostikoko gutxi gorabehera mugaz gaindiko 3.863 langileko zifran oinarritu zen kalkulua (3.212 frantziar nazionalitatedunak eta 651 espainiar nazionalitatedunak). Balio objektiboa **350 erantzuneko** izan zen eta horien artetik 291 frantziar nazionalitatedun pertsonenak eta 59 espainiar nazionalitatedun pertsonenak izan behar ziren.

A.2. Euroeskualdeko proiektuetako kideei egindako inkesta

Identifikazioa

Operazioaren izena: COVID-19ak Euroeskualdeko proiektuetan izandako eragina

Maiztasuna: Inkesta bakarra

Operazio mota: Erroldakoa

Metodologia, datuen jatorriaren arabera: Populazio estatistiko osoari egindako inkesta

Helburuak

Inkestaren helburu orokorra COVID-19aren pandemiak ekarritako egoerak eta Frantziaren eta Espainiaren arteko mugaren itxierak Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdearen babesa duten mugaz gaindiko proiektuen garapenean izandako eraginaren inguruko informazioa biltzea da, horri lotutako erronka edo arazo nagusiak identifikatuz eta kideen ustez behin mugaz gaindiko mugikortasuna berriro posible denean suertatuko den egoera berrira moldatzeko egokienak diren jarduketan inguruko iritzia bilduz.

Helburu orokor honen baitan honako helburu espezifikoak daude:

1. COVID-19aren krisian zehar muga itxita egoteak mugaz gaindiko proiektuen garapenean izandako eragina kuantifikatzea, kideek izandako arazoaren tipologia eta horien aurrean erantzuteko gauzatutako jarduketak aztertuz.
2. Egoeraren eragin maila aztertzea eragindako sektoreen arabera, batez ere ekonomiaren eta lanaren esparruan.
3. Kideek etorkizunera begira mugaz gaindiko proiektuen jarraitutasunaren inguruan duten ikuspegia baloratzea.
4. Euroeskualdeak mugaz gaindiko lankidetzaren proiektuetako kideei laguntzeko har ditzakeen balizko neurriak identifikatzea.

Eremua

Biztanleria-eremua:

Inkesta honetako biztanleria-eremua abian diren eta Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeko LLETren babesa duten Euroeskualdeko proiektuen arduradunak dira.

Eremu geografikoa:

Inkesta honetan agertzen den eremu geografikoa Akitania Berria - Euskadi - Nafarroa Euroeskualdea da.

Denbora-eremua:

COVID-19ak Euroeskualdeko proiektuetan izandako eraginari buruzko inkesta honen denborazko erreferentzia 2020ko martxotik ekainera bitarteko hilabeteena da (bat dator muga itxita egon den denborarekin).

Behin bakarrik egin da inkesta hau.

Laginaren diseinua

Errolda erako operazio estatistiko bat denez, ez da lagina diseinatzeko prozesurik burutu behar izan; izan ere, biztanleria-eremu osoari zuzendutakoa izan da inkesta.

Ondorioak

Ondorioak

COVID-19ak sortutako krisiaren testuinguruan, Europar Batasuneko estatu kideek Schengen eremuaren barruan Europako herritarren mugikortasunari ezarritako murrizketek eta kontrolek **Lisboako Tratatuko babestutako pertsonen, ondasunen eta zerbitzuen zirkulazio-askatasunak etetea/gutxitzea** eragin dute. Gainera, murrizketa horiek mugaz gaindiko jarduera geldiaraztea ekarri dute, eta horrek kalteak eragin ditu ezabatu genituen mugen inguruan bizi direnen ekosistema sozial eta ekonomikoetan.

Galdetegi hauen emaitzek mugaz gaindiko biztanleen eguneroko bizitza, askotan Espainiako eta Frantziako estatuen artean antolatua, nola eten den erakusten digute. Eta etenaldi horrek **familia-harremanetan, harreman sozioekonomikoetan eta osasun-zerbitzuetarako sarbidean ere** zer nolako **ondorioak izan dituen** argitzen lagundu dute emaitzok.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 174. artikulua mugako eskualdeek dituzten erronkak barne hartzen ditu, eta Batasunak eskualde horiei arreta berezia eskaini behar diela xedatzen du, mugalde horien kohesio ekonomiko, sozial eta lurraldekoa sendotzeko ekintzak garatzerako orduan. Mugako lurraldeak Europako integrazio prozesua modu positiboenean hautemateko lekuak dira. Hala ere, **sistema administratibo eta juridiko ezberdinen artean bizitza konplexua eta garestia izaten jarraitzen du**. Izan ere, mugaz gaindiko oztopoen %20 soilik gaindituko balute, mugako eskualdeek beren BPGa %2 emendatu dezaketela adierazi du Europako Batzordeak.

Lurralde Lankidetzako Europako Taldekatzeek (LLET) **lurralde lankidetzaren erraztu eta sustatu nahi dute**, mugaz gaindiko, nazioaz haraindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren ardatz bat edo gehiago barne hartuta, betiere Europar Batasunaren kohesio ekonomiko, sozial eta lurraldekoa sendotzeko helburuarekin.

LLET Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak, hiru lurraldeen arteko mugaz gaindiko lankidetzaren sustatzeko tresna gisa, lurraldearen erronka ezberdinei erantzuteko lan egin du eta modu aktiboan lan egiten dihardu. Era berean, txosten honetan identifikatutako emaitzek gure etorkizuneko jarduketa ildoetan gidatuko gaituzte, **mugaz gaindiko informazioa eskura jartzeko eta mugaz gaindiko langileen kasuistikan arreta berezia jarritz**.

Eskerrak

Eskerrak

Euroeskualdeak eskerrak eman nahi dizkie **mugaz gaindiko lankidetzaren esparruan lan egiten duten mugaldeko udalei, administrazioei eta instituzioei eta lurraldeko eragileei**, inkesta zabaltzen laguntzeagatik. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu **mugaz gaindiko biztanleei**, izandako parte-hartzeagatik eta galdetegien bidez emandako informazioagatik.





• **E** EURORÉGION
EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRA
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAVARRA
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA